Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

Eskuetan mapak

Asier Serrano

TXALAPARTA

186 orrialde

16 euro

Musika talde bat 90eko hamarkadan

XX. mendeko azken hamarkadan osatu zen euskal musika talde baten gorabeherak azaldu ditu Asier Serranok *Eskuetan mapak* izeneko nobelan. Hamabost urte zituztela osatu zuten Eibarko lau gaztek talde hori, eta haietako baten heriotzak ematen dio hasiera narrazioari. Aitaren eskopetarekin bere buruari tiro eginez hil zen laguna. Heriotza hark bizi osorako marka utzi zuen nobelaren narratzaile eta taldeko abeslariarengan. Lau behar zuten izan taldean, eta beste mutil batek hartu zuen hildakoaren lekua. Zuloan taldeko ibilbide kolektibo eta pertsonala agertzen du liburuak: drogen eragina, elkarren arteko adiskidetasuna, traizioak, amodioa, abertzaletasuna eta mundua ulertzeko era desberdinak.

Giza migrazioak lehen eta orain

Batzuen artean

GAIAK

152 orrialde

Inmigrazioaren fenomenoa ulertzeko zenbait gako

Eduardo Arrayet eta Ekain Martinez Lizarduikoaren artean osatutako *Giza migrazioak lehen eta orain* liburuak gaur egun gertatzen ari den migrazio-fenomeno konplexuaren irakurketa orokor, zabal eta kritikoa egiteko tresna izan nahi du. Horretarako batu dituzte gertakaria ulertzeko beharrezkotzat jo dituzten gai batzuk: besteak beste, migrazioen historia laburra azaltzen da liburuan; fenomenoari buruzko teoria eta eredu desberdinak; ekartzen dituen ondorioak; Europako, Espainiako eta Euskal Herriko migrazioak; inmigrazioa jasotzen duten herrialdeetan sortzen diren gatazka, aukera eta erronkak; estereotipo eta aurreiritziak, euskal gazteen ikuspegia agertuz; gaiaren inguruko hiztegia eta lotura duten web gune interesgarriak.

Arrazoiketa nola erabili kazetaritzan

Kazetari direnei edo izan nahi dutenei zuzenduta dago Jose Inazio Basterretxea Polok idatzi duen *Arrazoiaren hitza. Argudio-bidean arrastoak* liburua. Munduaren ulermenerako eta kontakizunerako kazetariak beharrezko dituen lan tresnetako batzuk azaltzen dira UEUk argitaratu duen lan berrian. Argudiatzea helburu duten lanak azaltzeko ezinbesteko diren zenbait gai, alegia. Hau da, munduaren interpretazioa azalpen-diskurtsoetara eramateko modu batzuk. Batetik, argudioaren teoria klasikoa, Aristoteles, Zizeron, Marko Aurelio eta Kintilianok adierazitakoetatik hasita. Eta bestetik, kazetaritza lan duina aurrera eramateko etika eta sormenlana ezinbestez batu behar dituen irizpidea. Etikaren aldeko aldarriarekin bat egiten duten egungo egileen aipamenak bildu ditu, Perelman eta Lausberg irakasleenak bereziki.

Arrazoiaren hitza

Jose Inazio Basterretxea Polo

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

140 orrialde

16,60 euro

Karmeldarrek jada zortzi mende

Palestinan dagoen mendirantz itzuli dituzte begiak *Karmel* aldizkariko lagunek, 1206 eta 1214. urteen artean San Alberto Jerusalemgo patriarkak karmeldarrei eman zien erregela gogoratzeko. Haren mamia euskarara ekartzeko, latinetik gaztelaniara egindako itzulpena hartu dute kontuan gehienbat, baina baita Lino Akesolok *Orduen Liturgia*rako egindako itzulpena ere. Horrez gain, karmeldarren mugimendua sortu zen garaia, XII-XIII. mendeetako ermitauen eta zenobiten bizimodua, eta behar zituzten aldaketak izan ondoren Europara eta bide batez Euskal Herrira etortzeko bide izan zen egoera geografikoa eta historikoa azaldu dituzte, laburki bada ere, *Karmel mendia eta karmeldarrak erregelaren 8. mendean* izeneko lanean. Bestalde, oparo dator olerkien saila, JosAnton Artze, Itxaro Borda eta Pello Otxotekoren lanekin.

Karmel

Batzuen artean

EUSKAL HERRIKO KARMELDARRAK

160 orrialde

Urteko harpidetza:

12 euro

Wakefield
Nathaniel Hawthorne
ALBERDANIA / ELKAR
240 orrialde
13,20 euro

Kafka, Poe eta Borgesen aurrekaria euskaraz

XIX. mende hasieran idatzi zituen Nathaniel Hawthornek (1804-1864) Koro Navarrok euskarara itzuli dituen ipuinok. Primeran idatzitako lana da; Ingalaterra Berriko idazleak utzi zituen kontakizunek aspaldiko mundu urrun baten erreferentziak islatu arren –titareak konpontzera eramaten ziren garaikoak; baserritar neskak pipa-erretzaile finak zirenekoak; haurrek bere ama saldu zutenekoak– egun gertatu balira bezala irakur daitezke, hain dago ondo adierazia protagonisten izaera eta mundua ulertzeko era. Liburuko lehen istorioa emaztearengandik urrundu, aldameneko kalera bizitzera joan, eta hogei urteren buruan etxera itzultzen den gizonarena da.

Juan Kruz Igerabidek eta Mikel Valverdek osatutako istorioa

1999ko Euskadi saria irabazi zuen Juan Kruz Igerabidek Jonas mutikoa protagonista zuen kontakizun batekin. Geroztik plazaratu ditu haren istorio gehiago, seigarrena den *Adio, Jonas*ekin zikloa ixtea erabaki duen arte. Bost urtetik aurrerako neska-mutikoei zuzenduta daude kontakizunok. Oraingoan, Jonasen izeba baten urtebetetzea da eta mutikoak harentzat prestatutako oparia eman nahi dio. Amak ezetz, igandean joango direla. Orduan Jonasek bakarrik joatea erabakiko du, eta galdu egingo da.

Adio, Jonas
Juan Kruz Igerabide
AIZKORRI
36 orrialde / 5,75 euro

egileari galdezka

JON ARANO

«Profeta naiz, pailazoaren sudurrarekin»

Zer aurkituko du irakurleak poema hauetan?

Nire bizikizunetan oinarrituta idatzi ditut, herriko hizkera erabiliz. Zaharrari erreparatuta, zerbait berria egin nahi izan dut. Era guztietako poemak dira: infernurako poema gorri-beltzak, purgatoriorako moduko neutroagoak edota paradisurako izan daitezkeen arrosa urdin argiak. Liburu osoan dago ironia pil-pilean, baita zinismoa ere. Desertuko predikaria bezala ikusten dut nire burua. Profeta naiz, pailazoaren sudurrarekin.

Lehen idatzi zenituen poemetaz damu al zara?

Bai, esandako hainbat gauza ez nuke orain errepikatuko. Beti kritikatzen aritu izan gara baina, akaso, kritikatzeko baino gehiago dago aldarrikatzeko. Lehen mundua aldatu nahi genuen, orain konturatu naiz mundua ezagutu egin behar dela, mundu honetan denetik baitago, ezagutzea da kontua.

Nolakoa da oraingo Jon Arano?

Koldo Izagirrek nitaz esan zuen konformismoaren eta sakratuaren aurka nagoela, eta miseria eta gezurra ikusi orduko antzematen ditudala. Egia da nire burua ongi ezagutzen dudala, eta baita nire miseriak ere, eta esango nuke besteenak usaintzeko ere gauza banaizela. Nik neure burua ikonoklastatzat hartzen dut, gauzei buelta eman eta denari punta ateratzea da nik egiten dudana.

Eta gizartea kritikatu, ez da hala?

Agintearen kritika da nirea. Ikonoklasta ere esan izan didate, ikonoei buelta emateko joera dudalako. "Ondo zaudete eta esaten duzue oso ongi bizitzen dela", horixe kritikatzen dut nik. Gezurra ari du goian behean, eta gezurrak sutan jartzen nau.

Jon Aranoren hirugarren poesia liburua

Aspaldikoa du Jon Aranok poesia zaletasuna. *Zeruko ARGIA*n argitaratu zituen aurreneko poemak. Gerokoak dira, berriz, Susa argitaletxearekin plazaratutako *Bileterik gabe* (1985), eta *Malezia sorta* (1991) poema liburuak. Eta bere olerkien berririk izan gabe hamasei urte joan badira ere, berak ez omen dio inoiz idazteari utzi. Horren lekuko dira Joseba Jaka V. Literatura Beka saria jaso zuen *Zeruak eta ifrentzuak*, liburua, Elkar argitaletxeak orain kaleratu duena, baita laster argia ikusiko duen *Zeru akastuak* ere. Urte gogorrak izan ei dira azken hauek Jon Aranorentzat, batik bat *Ostiela* aldizkaria utzi behar izan zuenetik –*bihotza pulunpaka/ bakardadea kiloka/ eta besarkada berriz/ ezin besarkatuzko pena* dio poemetako batean–. Baina basamortutik irteten ari omen da, eta horren froga dira *Zeruak eta ifrentzuak* liburuan jasotako testu ironikoak, hemen dela infernua eta zerua dioten olerkiak. Garai batean izan zen poeta gazteak kontuak eskatzen dizkio oraingo poeta helduagoari, orduko hainbat kritika axalkeriatzat joaz. *Heuretzat idazten hituen/ heure amorru eta manifestuak, inbentariatutako zorne zuria/ ez huen ez geronen inbentua* adieraziz, erabakitzeko: *A ze trastoak/ ginenekoan poetastroak!*

Zeruak eta ifrentzuak
Jon Arano
ELKAR
124 orrialde
12,60 euro